



## **LAB ETA NIEN arteko AKORDIOA NAFARROAN**

Pasa den azaroaren 4an, LAB sindikatuak eta Nafarroen Ikastolen elkarteak (NIE) akordio bat sinatu zuten, ustez Nafarroako Ikastolen lan-hitzarmenaren negoziazioa erraztea helburua duena.

Hitzartutako puntuak hurrengoak dira:

- NIE-k, negoziatioek iraun bitartean, Nafarroako Ikastolen lan-hitzarmen berri bat hitzartu ahal izateko jarrita zuen denbora-muga (2013ko abenduaren 31a) bertan behera utzi du. Aldi berean, 2013ko irailaren 10ean sindikatuei eta langileei izandako komunikazioa ere eraginik gabe geratu da.
- LAB sindikatuak, bere aldetik, konpromisoa hartzen du negoziatioek iraun bitartean, Estatu mailako hitzarmenarekin zerikusia duten ekimen judizialak eteteko.
- Bi aldeek, Nafarroako Ikastolen aurreko hitzarmena luzatzea adosten dute, berria negoziatzen den bitartean. Lansariei dagokienez, soldatak Nafarroako Gobernuak ordainketa eskuordetuaren bidez ezarritako moduluari eta ikastolek jarritako osagarriari egokituko zaizkie. Ulertu dugunaren arabera, azken hauek hitzarmen berriari begira, kontura hartutako aurrerakinak izango lirateke.

Beste aldetik, EAE-n, Ikastoletako Negoziatio mahaiaren bilera biharko, azaroaren 14rako deitu dute. Partaidek eta LABek izan dituzten hartu-emanen berri izango dugu bertan?

Informatzen jarraituko zaituztegu.



**ARABA:** Eulogio Serdan, 5      01012 Gasteiz      ☎ 945 14 11 04      📠 945 14 43 02      [araba@stee-eilas.org](mailto:araba@stee-eilas.org)

**BIZKAIA:** Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)      48003 Bilbao      ☎ 944 10 02 98      📠 944 10 13 60      [bizkaia@stee-eilas.org](mailto:bizkaia@stee-eilas.org)

**GIPUZKOA:** Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)      20015 Donostia      ☎ 943 46 60 00      📠 943 45 36 27      [gipuzkoa@stee-eilas.org](mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org)

**NAFARROA:** Descalzos, 72 (lonja)      31001 Iruñea      ☎ 948 21 23 55      📠 948 22 97 90      [nafarroa@stee-eilas.org](mailto:nafarroa@stee-eilas.org)